

GAUR EGUNGO RADIOGRAFIA

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Administrazio Publikoko zerbitzu orokorretan diharduten karrerako eta bitarteko funtzionarioen **5.564** lanpostuen gainean egindako azterketaren ondorio dira Euskadiko Administrazio Orokorraren Enplegu Planean jasotako jardute-proposamenak:

ADMINISTRAZIO-UNITATEA	Karrerako funtzionarioak	Bitarteko funtzionarioak
Polizia Akademiako administrazio-langileak	7	0
Lehiaren Euskal Agintaritza	7	1
Emakunde	12	21
EUSTAT	42	58
HABE	43	9
IVAP	41	78
Kontsumobide	44	15
Lanbide	419	155
Osalan	91	63
Eusko Jaurlaritzako sailak	2.884	1.574
GUZTIRA	3.590	1.974

Gaur egungo egoerari begira, honako hau ondorioztatu daiteke:

- **GENEROA:** Euskadiko Administrazio Orokorrean, emakume gehiago dabil lanean; **% 62,6 emakume, % 37,4 gizonen aldean.**

GENEROA	PERTSONA KOPURUA
Gizonezkoak	2.077 (% 37,4)
Emakumezkoak	3.487 (% 62,6)

- **ADINA:** Langileen batez besteko adina **50,84 urte**koa da. Buruzagitza postuak betetzen dituzten pertsonen adinari bagagozkio, batezbestekoa 52,9 urteraino goratzen da.

LANBIDE-KATEGORIA	BATEZBESTEKOA (URTEAK)
Buruzagitza postuak betetzen dituzten pertsonak	52,99
Teknikarien kidegoa	49,87
Administrarien eta laguntzaileen kidegoa	51,32
Mendekoen kidegoa	49,96

LANGILEAK	BATEZBESTEKOA (URTEAK)
Bitarteko funtzionarioak	45,23
Karrerako funtzionarioak	53,87

GENEROA	BATEZBESTEKOA (URTEAK)
Gizonezkoak	51,70
Emakumezkoak	50,78

- **ERRETIROAREN ZENBATESPENA:** gaur egun Administrazio Orokorrean lan egiten duten pertsonen **% 68,51 2015 eta 2031 bitartean** erretiratuko da. Aintzat hartzen baditugu epe horretan **buruzagitza postuetarako zenbatetsi diren erretiroak, % 78,09raino igotzen da ehuneko hori.**

LANBIDE-KATEGORIA	BATEZBESTEKO ERRETIRO-DATA (URTEA)
Buruzagitza postuak	2027
Teknikarien kidegoa	2030
Administrarien eta laguntzaileen kidegoa	2028
Mendekoen kidegoa	2030

LANGILEAK	BATEZBESTEKO ERRETIRO-DATA (URTEA)
Bitarteko funtzionarioak	2034
Karrerako funtzionarioak	2026

GENEROA	BATEZBESTEKO ERRETIRO-DATA (URTEA)
Gizonezkoak	2028
Emakumezkoak	2029

- **AURRE-ERRETIROAK:** **aurre-erretiroetan, 62,32 da batez besteko adina.** Administrazio nahiz laguntzaileen kidegoan aurreratzen da gehien erretiroa. Gehiago dira aurretiaz erretiratzen diren emakumeak, eta gizonezkoak baina adin zertxobait txikiagoan erretiratu ohi dira.

LANBIDE-KATEGORIA	AURRE ERRETIROEN (2005-2015)
Buruzagitza postuak	19 (%7,39)
Teknikarien kidegoa	58 (%22,57)
Administrarien eta laguntzaileen kidegoa	165 (%64,20)
Mendekoen kidegoa	15 (%5,84)

GENEROA	ERRETIRATZEKO BATEZ BESTEKO ADINA (2005-2015)
Gizona	62,94
Emakumezkoak	62,10

- **FUNTZIONARIOAK:** Planean aintzat hartutako 5.564 lanpostuei bagagozkie, **bitartekotasun-tasa % 35,48** inguruan kokatzen da, eta gehiago eragiten die emakumeei. **Buruzagi eta teknikari lanpostuei** erreparatzen badiegu, **% 43,12**raino goratzen da bitartekotasun-tasa.

LANGILEAK	PERTSONA KOPURUA
Bitarteko funtzionarioak	1.974
Karrerako funtzionarioak	3.590

LANGILEAK	BURUZAGIAK	TEKNIKARIAK
Bitarteko funtzionarioak	58	976
Karrerako funtzionarioak	444	920

GENEROA	BITARTEKO FUNTZIONARIOAK	KARRERAKO FUNTZIONARIOAK
Gizonezkoak	672	1.405
Emakumezkoak	1.302	2.185

- **KATEGORIA PROFESIONALA:** Administrazio Orokorrean, administrari eta laguntzaileena da langile gehien dituen kidego profesionala. Generoari erreparatuz gero, **teknikarien artean % 58,01 dira emakumeak;** **buruzagitza-postuetan, berriz, % 43,43.**

LANBIDE-KATEGORIA	PERTSONA KOPURUA
Buruzagitza postuak	502
Teknikarien kidegoa	1.896
Administrarien eta laguntzaileen kidegoa	2.452
Mendekoen kidegoa	714

LANBIDE-KATEGORIA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Buruzagitza postuak	284	218
Teknikarien kidegoa	796	1.100